



ESTADISTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2017ko 3. hiruhilekoa

Emaita nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Espezifiko*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Emandako obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du hiru lurralde historikoetan, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko inkestak agerian jartzen duenez, 2017ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek guztira obra handiko 708 lizentzia eman zituzten. Emaidza horiek zertxobait txikiagoak dira 2017ko bigarren hiruhilekoan erregistratutakoekin alderatuta. 73 lizentzia gutxiago eman dira, beraz % 9,3ko beherakada egon da kopuru erlatibotan. Aurreko urteko hiruhileko berberarekin konparatuta, jarduerak behera egin du modu nabarmenagoan: 114 lizentzia gutxiago onartu dira; beraz, % 13,9ko beherakada egon da.

Bizkaian hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 55,8 eman da, guztira 395. Atzetik doa Araba 173 lizentziarekin, guztien % 24,4. Gainerako 140ak, guztien % 19,8, Gipuzkoakoak dira.

Gipuzkoa da EAEko lurralde historikoen artean obra handiko lizentzien kopuruaren beherakadarik txikiena izan duena 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 2,1 egin du behera erreferentzia-aldian (3 lizentzia gutxiago). Bizkaian, emandako lizentzien kopuruak behera egin du % 5,5 2017ko bigarren hirugarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean; guztira, 23 lizentzia gutxiago izan dira. Lurralde guztien artean Araban gertatu da beherakadarik handiena aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 21,4ko beherakada egon baita (47 lizentzia gutxiago).

Hiruhilekoko aldakuntzen ildo beretik, emandako lizentzien kopuruaren urtearteko emaitzak txarrak izan dira lurralde historiko guztietan, baina intentsitate diferentearekin. Bizkaiko lurraldean 46 lizentziako beherakada absolutua egon da 2016ko hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 10,4ko beherakada erlatiboa egon da. Araban, urtearteko beherakada 30 lizentziakoa izan da, eta epealdian beherakada erlatiboa % 14,8koa izan da. Gipuzkoan emandako lizentzien kopuruaren beherakada handiagoa ikusi da; izan ere, 2016ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 178 lizentzia eman ziren, 2017ko hirugarren hiruhilekoan baino 38 gehiago (140 lizentzia, % 21,3ko beherakadarekin).

Birgaitzeko obrei lotutako lizentziak nagusi dira oraindik ere

2017ko hirugarren hiruhilekoan mantendu egin da aurreko hiruhilekoan **emandako lizentzien moten** arabera banaketan ikusitako joera, hau da, argi eta argi nagusi izan dira birgaitzeko obra handiko lizentziak, eta aldakuntza txikiak egon dira azken hiruhilekoko partaidetzan.

Zehaztasunez, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 84,7 izan dira (2017ko lehenengo hiruhilekoko % 83,7tik eta



2017ko bigarren hiruhilekoko % 83,1etik gora), eraikuntza berriko eraikinetarako % 13,3 izan dira (2017ko lehenengo hiruhilekoko % 14,4tik eta bigarren hiruhilekoko % 14,5etik behera) eta eraispentarako, berriz, % 2,0. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 600 lizentzia (2017ko bigarren hiruhilekoan baino 49 gutxiago, % 7,6ko beherakadarekin), 94 eraikuntza berrirako (19 lizentzia gutxiago, % 16,8ko beherakadarekin) eta eraisteko 14 lizentzia, aurreko hiruhilekoan baino 5 gutxiago.

2017ko hirugarren hiruhilekoan, eraikuntza berriko lizentziek eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia modu diferentean banatzen da, zein lurralde historiko aztertzen dugun, eta haien arteko aldeak handitu egin dira azken hiruhilekoan. Gipuzkoan, eraikuntza berriko lizentziek pisu erlatibo zertxobait handiagoa dute (emandako obra handiko lizentzien % 22,9; Araban, aldiz, halakoak % 14,5 dira eta Bizkaian % 9,4). Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez; eraispenen eragin desberdinaren ñabardurarekin: Gipuzkoan, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 72,9 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 85,0 da, eta Bizkaian % 88,9.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2017ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berberarekin erkatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2017ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%-a	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	708	100,0	-73	-9,3	-114	-13,9
	Eraikuntza berria	94	13,3	-19	-16,8	-33	-26,0
	Birgaitzea	600	84,7	-49	-7,6	-85	-12,4
	Eraistea	14	2,0	-5	-26,3	4	40,0
Araba	Guztira	173	100,0	-47	-21,4	-30	-14,8
	Eraikuntza berria	25	14,5	-11	-30,6	-1	-3,8
	Birgaitzea	147	85,0	-32	-17,9	-27	-15,5
	Eraistea	1	0,6	-4	-80,0	-2	-66,7
Bizkaia	Guztira	395	100,0	-23	-5,5	-46	-10,4
	Eraikuntza berria	37	9,4	-9	-19,6	-29	-43,9
	Birgaitzea	351	88,9	-9	-2,5	-20	-5,4
	Eraistea	7	1,8	-5	-41,7	3	75,0
Gipuzkoa	Guztira	140	100,0	-3	-2,1	-38	-21,3
	Eraikuntza berria	32	22,9	1	3,2	-3	-8,6
	Birgaitzea	102	72,9	-8	-7,3	-38	-27,1
	Eraistea	6	4,3	4.	200,0	3	100,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa



2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren arteko epealdian ikusi denez, Araban nabarmen egin du behera eraikuntza berriko lizentzien kopuruak (-% 30,6), eta neurri txikiagoan birgaitzeko obren kasuan (-% 17,9). Bizkaian, beherakada erlatiboa arinagoa da, bai birgaitzeko lizentziei dagokionez (-% 2,5), bai eraikuntza berriko lizentziei dagokionez (-% 19,6). Gipuzkoan, aldiz, portaera zertxobait positiboa ikusi da obra berriari dagokionez (% 3,2); birgaitzeko lizentziei dagokionez, aldiz, % 7,3ko beherakada izan da.

Urtearteko bilakaeran, Bizkaiak bilakaerarik txarrena izan du eraikuntza berriko lizentzietan, eta atzerapen nabarmena izan du emandako mota horretako lizentziei dagokionez (-% 43,9). Gipuzkoaren kasuan % 8,6ko atzerakada egon da, eta Araban atzerakada txikiagoa (-% 3,8). EAE osoan, obra berriko lizentzien kopuruak urtearteko datuetan behera egin du % 26,0, guztira obra berriko 33 lizentzia gutxiago eman baitira.

Birgaitzeko emandako lizentzien kopuruak atzera egin du EAEn, baina eraikuntza berrikoenak baino intentsitate txikiagoarekin (-% 12,4), 2016ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2017ko hirugarren hiruhilekoaren artean. Jaitsiera horrek lotura dauka Gipuzkoan gertatutako atzeraldarekin (-% 27,1) eta Araban gertatutakoarekin (-% 15,5); atzeraldi hori EAEko batezbestekoa baino handiagoa izan da. Bizkaian (-% 5,4), aldiz, emandako mota horretako lizentzien kopuruak izan duen beherakada, EAEko batezbestekoa baino txikiagoa izan da.

Metatutako urtearteko datuek erakusten dutenez, atzeraldi arina egon da EAEn 2017ko hirugarren hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan

Urteko datu metatu horiek 2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017ko hirugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte; aurreko urteko hiruhileko berberen (2015eko laugarren hiruhilekotik 2016ko hirugarren hiruhilekora) urteko metatuarekin konparaketa eginez gero, ikusten denez, 62 lizentzia gutxiago eman dira, 2016ko epealdi konparagarrian baino -% 2,0 gutxiago. Jaitsiera zertxobait handiagoa da eraikuntza berriko lizentzien kasuan, EAEn % 5,6ko beherakada egon baita (27 lizentzia gutxiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, -% 1,8 izan da (46 lizentzia gutxiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak, aldiz, gora egin du % 19,6, 11 lizentzia gehiago eman baitira.

Zifra horiek 2017ko bigarren hiruhilekoari dagozkion urtearteko datu metatuekin konparatuta, aurkeztutako datuek erakusten dute aurreko hiruhilekoan erregistratutako hazkunde-joera hautsi egin dela (2017ko bigarren hiruhilekoko +% 5,0tik hirugarren hiruhilekoko -% 2,0ra). Etxebizitza berriei lotutako lizentzien kasuan: 2017ko lehen hiruhilekoko % 25,6ko hazkundetik bigarreneko % 5,4ko hazkundera igaro da, eta gerora, oraingo hiruhilekoan % 5,6ko jaitsiera izan dute. Birgaitzeko obren lizentzien kasuan, urtearteko bilakaera honako hau izan da: 2017ko lehen hiruhilekoko % 13,5etik, bigarreneko % 5,0ra eta 2017ko hirugarreneko -% 1,8ra.



Birgaitzeari dagokionez, 2017ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuen dinamika ona Arabak soilik izan du; etxebizitza berriari dagokionez, egoerak Bizkaian soilik egin du hobera

Urtearteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta agerian geratzen da EAEn dinamika diferenteak daudela.

Bizkaiak atzeraldi arina izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berberarekin alderatuta (-% 0,9, 14 lizentzia gutxiago eman ziren). Gorakada horrek agerian jartzen du egoerak txarrera egin duela 2017ko lehen hiruhilekoko % 17,2ko hazkundearekin eta bigarren hiruhilekoko % 2,8ko hazkundearekin alderatuta.

Bizkaiko datu deigarri bat da eraikuntza berriari dagokionez hazkunde arin bati (+% 0,5) eutsi dion lurralde historiko bakarra dela, baina 2017ko bigarren hiruhilekoan erregistratutako +% 30,8ko gorakadatik oso beherago egon dela. Birgaitzeari lotutako obra-lizentziei dagokienez, behera egin dute % 1,9 (26 lizentzia gutxiago)

2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2017ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentuajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2016ko 4. hh-tik 2017ko 3. hh-ra		Metatua 2015eko 4. hh-tik 2016ko 3. hh-ra		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
		Kopurua	%-a	Kopurua	%-a	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	2.980	100,0	3.042	100,0	-62	-2,0
	Eraikuntza berria	458	15,4	485	15,9	-27	-5,6
	Birgaitzea	2.455	82,4	2.501	82,2	-46	-1,8
	Eraistea	67	2,2	56	1,8	11	19,6
Araba	Guztira	771	100,0	767	100,0	4.	0,5
	Eraikuntza berria	124	16,1	134	17,5	-10	-7,5
	Birgaitzea	635	82,4	621	81,0	14	2,3
	Eraistea	12	1,6	12	1,6	0	0,0
Bizkaia	Guztira	1.599	100,0	1.613	100,0	-14	-0,9
	Eraikuntza berria	209	13,1	208	12,9	1	0,5
	Birgaitzea	1.357	84,9	1.383	85,7	-26	-1,9
	Eraistea	33	2,1	22	1,4	11	50,0
Gipuzkoa	Guztira	610	100,0	662	100,0	-52	-7,9
	Eraikuntza berria	125	20,5	143	21,6	-18	-12,6
	Birgaitzea	463	75,9	497	75,1	-34	-6,8
	Eraistea	22	3,6	22	3,3	0	0,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa.


Arabak, 4 lizentziako gorakada arinak urtearteko gorakada metatua ekarri du, % 0,5eko gorakada, alegia, obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentzia handiak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera.

Birgaitzeko lizentzien kopuruak gora egin du urtearteko % 2,3; emandako eraikuntza berriko lizentzien kopuruak, aldiz, nabarmen egin du behera (-% 7,5), emandako obra berriko lizentziak 10 gutxiago izan direlako aurreko erreferentzia-aldian baino (124 lizentzia, 134ren aldean). Araban aldi berean detektatu da eraisteko soilik diren lizentzien kopurua egonkortu egin dela (+% 0,0), bi epealdietan mota horretako 12 lizentzia eman baitira.

Bizkaian bezalaxe, Araban lizentzia kopuruan urtearteko hazkunde metatuaren erritmoa moteldu da 2017ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko zifrekin alderatuta. Hala, 2017ko bigarren hiruhilekoko % 4,7tik oraingo hiruhilekoko % 0,5era igaro da.

Gipuzkoa, bere aldetik, nabarmendu egiten da emandako lizentzien kopuruan beherakadarik handiena izan duelako (-% 7,9). Birgaitzeko obretarako lizentzien kopuruak behera egin du, urtearteko % 6,8, eta intentsitate handiagoarekin eraikuntza berrietan, % 12,6ko beherakada nabarmena egon baita. Multzoan hartuta, emakida kopuruak behera egin du, urtearteko zifretan 52 lizentzia gutxiago eman dira, birgaitzeko 34 lizentzia gutxiago eta eraikuntza berrietarako 18 gutxiago.

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN HELBURUA

2017ko hirugarren hiruhilekoan hobera egin du bizitegirako ez diren obra handiko lizentzien kopuruak, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina txarrera egin du aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta. Bizitegirako lizentziekin alderatuta, bi epealdietan txarrera egin dute

2017ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 694 lizentzia eman ziren eraikuntza berriko eraikinak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (510, guztien % 73,5) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zitzaizkien, eta gainerako 184ak, guztien % 26,5, bizitegitarako ez diren erabilerarako proiektuei¹.

2017ko hirugarren hiruhilekoan emandako obra-lizentzien artean **bizitegitarako erabilerakoak ez diren** helburu sektorialari dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzu erabilerakoak nagusi izan zirela (guztien % 60,3). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 30,4 bideratu zen, eta gainerako % 9,2, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien kopuruak 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean izan duen **hiruhilekoko bilakaera** ikusita, ikusten denez hobera egin dute bizitegitarako ez diren proiektuei lotutako emakidek (+% 5,1); bizitegitarako lizentziei dagokienez, aldiz, kopuruak behera egin du nabarmen (-% 13,1).

3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2017ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2017ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%-a	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	694	100,0	-68	-8,9	-118	-14,5
Bizitegia	510	73,5	-77	-13,1	-92	-15,3
Bizitegia ez dena	184	26,5	9	5,1	-26	-12,4
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	17	9,2	1	6,3	-4	-19,0
-Industria eta energia	56	30,4	5	9,8	-6	-9,7
-Zerbitzuak	111	60,3	3	2,8	-16	-12,6

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, halako lizentziak ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak (bizitegitarakoak eta bizitegitarakoak ez direnak) bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla.



Bizitegitarako ez diren lizentzien kopuruak gora egin du 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean (+% 5,1). Gorakada horrek batik **industriaren eta energiaren sektorearekin** (+% 9,8) eta **lehen sektorearekin** (+% 6,3) izan du lotura; **zerbitzuen** sektoreak, aldiz, gorakada apalagoa izan du (+% 2,8).

2016ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2017ko hirugarren hiruhilekoaren arteko **urteko** konparaketak datu txarrak ematen ditu bizitegitarako erabilerarako lizentziei (-% 15,3) zein bizitegitarako ez den erabilerarako lizentziei dagokienez (-% 12,4).

2016ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2017ko hirugarren hiruhilekoaren artean bizitegitarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, beherakadak ikus dira jarduera-sektore guztietan, intentsitate diferentearekin bada ere. Jaitsierarik handiena lehen sektorearekin lotzen da (-% 19,0); gainerako sektoreetan, aldiz, intentsitate txikiagoko aldakuntza negatiboak ikusten dira: industriaren eta energiaren sektorean, emandako lizentzien kopuruaren beherakada -% 9,7koa da, eta zerbitzuen sektorean kopuru ertainetan geratzen da (-% 12,6).

Urtearteko kopuru metatuetan, apur bat hobera egin du bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopuruak; bizitegirako ez diren lizentzienak, aldiz, behera egin du

Urtearteko adierazle metatuetan, iguripenak positiboak dira bizitegi-erabilerari dagokionez. Hala, 2016ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urtearteko kopuruak (2015eko laugarren hiruhilekotik 2016ko hirugarren hiruhilekora) 2017ko hiruhileko berbereko kopuruekin (2016ko laugarren hiruhilekotik 2017ko hirugarren hiruhilekora) konparatzean, datuek agerian jartzen dutenez apur bat hobera egin da bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopuruan (% 0,9ko gorakada), baina beherakada ikusi da bizitegirako ez diren lizentziei dagokienez (-% 11,3). Aurreko hiruhilekoko kopuruekin konparatzen badira, egiaztatzen da bi motetan joera txarra egon dela. Bizitegitarako ez diren lizentzien kasuan, beherakada ikusi da; izan ere, 2017ko lehen hiruhilekoko +% 4,5etik, bigarreneko % -7,7ra eta oraingo hiruhilekoko -% 11,3ra igaro dira. Bizitegi-erabilerarako lizentzien kasuan, emaitzek hobera egin dute baina hazkundea nabarmen murriztu da: 2017ko lehenengo hiruhilekoan urteko igoera metatuta % 19,7koa izan zen; bigarrenean, aldiz, % 10,0koa, eta oraingo hiruhilekoan +0,9koa.

Bizitegitarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2017ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez datuek orokorrean txarrera egin dute jarduera-sektore guztietan emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran. Bilakaerarik txarrena lehen sektorearena da; sektore horretan behera egin du % 34,6, eta horren atzetik zerbitzu-sektorea doa -% 9,9rekin, eta industriaren eta energiaren sektorea -% 3,0rekin.



4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2017ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2016ko 4. hh-tik 2017ko 3. hh-ra		Metatua 2015eko 4. hh- tik 2016ko 3. hh-ra		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
	Kopurua	%-a	Kopurua	%-a	Kopurua	Aldak. %
Guztira	2.913	100,0	2.986	100,0	-73	-2,4
Bizitegia	2.193	75,3	2.174	72,8	19	0,9
Bizitegia ez dena	720	24,7	812	27,2	-92	-11,3
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	68	9,4	104	12,8	-36	-34,6
-Industria eta energia	197	27,4	203	25,0	-6	-3,0
-Zerbitzuak	455	63,2	505	62,2	-50	-9,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Bizkaian eraikuntza berriko etxebizitzak eraikitzeak aurreikuspenak hobera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta Gipuzkoan soilik egin du hobera

2017ko hirugarren hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerako obra handiko 510 lizentziak guztira 1.025 etxebizitzari lotu zitzaizkien (aurreko hiruhilekoan baino 173 gutxiago). Etxebizitza horietatik 811 eraikuntza berriko jarduketek lotzen zaizkie, eta gainerako 214ak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira².

Zehaztu behar da eraginpean dauden eraikuntza berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Alderdi hori gogoan izanik, atzeraldia detektatu da 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean, EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruan (-% 18,4). 2016ko hirugarren hiruhilekoko kopurua 2017ko hiruhileko berbereko kopuruarekin konparatzen bada,

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bateko baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze obrak egiten diren. Eraginpean dauden etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira kontuan soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bateko baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bat edo gehiago (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bategite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).

ikusten da egoerak txarrera egin duela baina modu ez hain nabarmenean eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenean, -% 11,8 dela.

Beste alde batetik, hobetzeko egoera ikusten da 2017ko hirugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusten ziren etxebizitzaren kopuruan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 4,9), baina behera egin du 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta (-% 15,4).

2017ko hirugarren hiruhilekoan, jarduketa gehien aurreikusita zituen lurraldea **Bizkaia** da, guztira 501 etxebizitza baitzituen eraginpean, haien % 79,6 eraikuntza berrikoak (399 etxebizitza). Lurralde horretan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta gora egin du eraginpean dauden eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruak (+% 3,4); 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta, berriz, behera egin du % 38,8. Birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez, horien bolumenak zertxobait behera egin du 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (-% 1,9), eta intentsitate handiagoarekin 2016ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (-% 8,9).

5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2017ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berberarekin erkatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2017ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%-a	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.025	100,0	-173	-14,4	-148	-12,6
	Eraikuntza berria	811	79,1	-183	-18,4	-109	-11,8
	Birgaitzea	214	20,9	10	4,9	-39	-15,4
Araba	Guztira	96	100,0	-72	-42,9	-29	-23,2
	Eraikuntza berria	52	54,2	-73	-58,4	-15	-22,4
	Birgaitzea	44	45,8	1	2,3	-14	-24,1
Bizkaia	Guztira	501	100,0	11	2,2	-263	-34,4
	Eraikuntza berria	399	79,6	13	3,4	-253	-38,8
	Birgaitzea	102	20,4	-2	-1,9	-10	-8,9
Gipuzkoa	Guztira	428	100,0	-112	-20,7	144	50,7
	Eraikuntza berria	360	84,1	-123	-25,5	159	79,1
	Birgaitzea	68	15,9	11	19,3	-15	-18,1

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa

Gipuzkoan, bere aldetik, 428 etxebizitzatarako jarduketak egin dira 2017ko hirugarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 360 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba negatiboa dago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 25,5), baina hobera egin du 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta (+% 79,1). Birgaitzeko jarduketari



dagokionez, lurralde horretan hobera egin du 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean egindako jarduketari dagokionez (+% 19,3), baina behera egin du urtearteko dinamikan (-% 18,1).

Arabán, azkenik, 96 etxebizitzatarako jarduketak egon dira. Beherakada handia egon da 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (-% 42,9), eta horrek zerikusia dauka eraikuntza berriei lotutako ekintzen beherakada handiarekin (-% 58,4 azken hiruhilekoan, eta intentsitate txikiagoarekin urtearteko bilakaerari dagokionez: -% 22,4). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du % 2,3, 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; etxebizitzetarako aurreikusitako birgaitzeko emakiden kopuruak, aldiz, txarrera egin du aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta (-% 24,1).

Urtearteko kopuru metatuetan hobera egin dute lurralde historiko guztietako emaitzek, eraikuntza berriko etxebizitzetarako dagokienez. Birgaitzearen kasuan, EAEko lurraldeen artean Arabán soilik egin dute hobera emaitzek

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan egondako gorabehera handiak kontuan hartuta, komenigarria da azterketaren ardatzean emaitzen **urteko dinamika metatua** jartzea. Eragiketak modu horretan eginda, egiaztatzen da bizitegitarako xedea duen urteko jarduera, 2017ko hirugarren hiruhilekora arte metatutakoa, guztira aurreikusitako 5.001 etxebizitzari eragiten dien jarduketak direla. Horrek esan nahi du % 12,3 gorakada egon dela (546 etxebizitza gehiago), 2016ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerari dagokionez. Gorakada hori batez ere eraikuntza berriei lotutako jarduerekin lotzen da, eta horren eraginpean dauden etxebizitzaren kopuruaren % 16,8ko gorakada egon da (+598 etxebizitza). Birgaitzeko jarduketei dagokienez, ikusten da emaitzek txarrera egin dutela (-% 5,8, 2016ko hirugarren hiruhilekoan aurreikusitako jarduketaren eraginpean dauden 898 etxebizitzetatik 2017ko epealdi berbereko 846 etxebizitzetara igarotzean).

Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzean ikusitako prozesuetako diferentzia handien baldintzapean dago. Ildo horretan, birgaitzearen arloaren bilakaera ona Arabaren ezaugarria da soilik. Lurralde horretan urteko metatuaren +% 7,1eko gorakada egon da 2016ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2017koaren artean. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, ikusten da 2017ko hirugarren hiruhilekoan urtearteko beherakada egon dela birgaitzeko jarduketetan (-% 8,0 eta -% 10,6 Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren).

Lurraldeen arteko desberdintasunak era berean nabarmenak dira etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jarduketei dagokienez. Kasu horretan, Arabán egiaztatu da jarduera egonkortu egin dela (+% 0,3). Bizkaian, aldiz, +% 5,9ko gorakada egon da 2017ko hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatuan, 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta. Gipuzkoan gorakada askoz handiagoa izan da, % 40,1ekoa izan baita.



2017ko hirugarren hiruhilekoan urteko metatuaren aurreikuspenaren hazkundera moteldu egin da: 2017ko lehenengo hiruhilekoko % 47,8tik, bigarreneko % 24,3ra eta oraingo hiruhilekoko % 12,3ra igaro da. Kopuru absolututan, jarduketak aurreikusita dauzkaten etxebizitzak kopuruaren beherakada ere nabarmena da: 2017ko lehenengo hiruhilekoan metatutako 5.596 etxebizitzetatik, bigarren hiruhilekoko 5.149 etxebizitzetara eta oraingo hiruhilekoko 5.001 etxebizitzetara.

EAE osoan, aurreko datu horiek dinamika diferentea ezkututzen dute eraikuntza berrirako eta birgaitzerako. Birgaitzearen esparruan, urteko bilakaera metatuak beherakada erakutsi du, 2017ko bigarren hiruhilekoko % 2,4tik oraingo hiruhilekoko -% 5,8ra. 2017ko bigarren hiruhilekoko metatua halako 885 etxebizitza egon ziren; oraingo hiruhilekoan, aldiz, 846 etxebizitza.

6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2017ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajeak)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2016ko 4. hh-tik 2017ko 3. hh-ra		Metatua 2015eko 4. hh-tik 2016ko 3. hh-ra		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
		Kopurua	%-a	Kopurua	%-a	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	5.001	100,0	4.455	100,0	546	12,3
	Eraikuntza berria	4.155	83,1	3.557	79,8	598	16,8
	Birgaitzea	846	16,9	898	20,2	-52	-5,8
Araba	Guztira	561	100,0	547	100,0	14	2,6
	Eraikuntza berria	366	65,2	365	66,7	1	0,3
	Birgaitzea	195	34,8	182	33,3	13	7,1
Bizkaia	Guztira	2.495	100,0	2.410	100,0	85	3,5
	Eraikuntza berria	2.114	84,7	1.996	82,8	118	5,9
	Birgaitzea	381	15,3	414	17,2	-33	-8,0
Gipuzkoa	Guztira	1.945	100,0	1.498	100,0	447	29,8
	Eraikuntza berria	1.675	86,1	1.196	79,8	479	40,1
	Birgaitzea	270	13,9	302	20,2	-32	-10,6

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2017ko 3. hiruhilekoa

Eraikuntza berriari dagokionez, aldiz, ikusten da aurreikusitako urteko etxebizitzak kopuru metatuaren hazkundera intentsitateak behera egin duela aurreko hiruhilekoekin alderatuta, kopuru erlatibotan zein absolututan. Hala, kopuru erlatibotan, 2016ko laugarren hiruhilekoan eta 2017ko lehenengo hiruhilekoan urte arteko hazkundera erritmoa +% 47,6 eta +% 61,4 izan zen; horren ostean, hazkunde hori gutxi gorabehera % 30 izan zen 2017ko bigarren hiruhilekoan eta % 16,8 oraingo



hiruhilekoan. Kopuru absolututan, urteko metatuan, eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenaren barruan 2017ko lehenengo hiruhilekoan 4.685 etxebizitza zeuden, bigarren hiruhilekoan 4.264 etxebizitza eta oraingo hiruhilekoan, aldiz, 4.155 etxebizitza.

ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hileroko. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra da jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (eraikuntza berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak:

Obra handiko lizentzia: Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat::

a. Oin edo eraikuntza berriko obra: Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitzeko obra: Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispenez partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra: Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruaz azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra: Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira:

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispen-obra: Eraikin oso bat edo eraikin baten zati bat eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2017ko 3. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN HELBURUA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	9
ALDERDI METODOLOGIKOAK	13

Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2017ko 3. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2017ko 3. hiruhilekoan	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2017ko 3. hiruhilekoa..	7
4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2017ko 3. hiruhilekoan	9
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2017ko 3. hiruhilekoa	10
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2017ko 3. hiruhilekoan	12

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2017	6
--	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

WEBGUNEa: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/>

Posta elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus